

## TECNALIA RESEARCH AND INNOVATION (TRI)

### Sozietatearen izena

Tecnalia Research and Innovation Fundazioa

### IFK

G48975767

### Izaera

Fundazioa.

### Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

### Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

### Sorrera

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 1998ko ekainaren 4an eratu zen Labein Fundazioa izenarekin. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, ["Labein Fundazioa" EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 1999ko apirilaren 23ko Agindua betez.](#)

2010eko uztailaren 16an, Fundazioko Patronatuak izen berria hartu zuen, Tecnalia Research & Innovation Fundazioa, fusio-prozesua onartu baitzuen [2010eko irailaren 21eko Agindua, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuarenak, onartu eta EAEko Fundazioen erregistroan inskribatzen duena ezen Cidemco Fundazioa, European Software Institute Fundazioa, European Virtual Engineering Fundazioa, Fatronik Fundazioa, Inasmet Fundazioa, Leia Fundazioa, Teknologia Garapenerako Zentroa eta Robotiker Fundazioa xurgatzen dituela Tecnalia Research & Innovation Fundazioak \(lehen, Labein Fundazioa\); eta onartu eta inskribatzen du fundazio xurgatzaileak adostutako estatutu-aldaketa, lehengo patronoak kentzea eta berriak izendatzea eta haren patronatuko karguak banatzea, bai eta patronoen ordezkari izango diren pertsona fisikoak esleitzea ere.](#)

### Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

### EJSN

7219 Bestelako ikerketa eta garapen esperimentalak natura- eta teknika-zientzietan.

### Fundazioaren xedea eta helburua

Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak sustatzea eta garatzea, era horretan erakundea hobetzeko, erkidego osoaren onerako eta fundazioan eta bertan lan egiten duten pertsonengan konfiantza jarri duten enpresa eta erakundeen onerako.

Ildo horretan, helburu nagusietako bat da laguntza ematea teknologiari buruzko jakintza sortzen eta aplikatzen, era horretan enpresen lehiakortasuna areagotzeko teknologiaren eta berrikuntzaren arloan.

### Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

## Fundazio-zuzkidura

15.011.766 € (eskrituratutako eta exijitu gabeko fundazio-zuzkidura 594.207 €).  
2010ean fusionatutako fundazioen zuzkiduren batura da.

## Patronatuaren osaera

### Erakundeetako patronoak


EAEko Administrazio Orokorra	6/43
Arabako Foru Aldundia	1/43
Bizkaiko Foru Aldundia	1/43
Gipuzkoako Foru Aldundia	1/43
EHU	1/43

### Izendapen Libreko Patronoak

Herritarrak	8/43
-------------	------

### Patrono Bazkideak

Enpresa pribatuak	25/43
-------------------	-------



## Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	235.621.713 €
Ondare garbia	100.985.372 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	1.287

## Sozietatearen helbidea

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Geldo kalea, 700. eraikina, 48160 Derio (Bizkaia)

## Webgunea

[www.tecnalia.com](http://www.tecnalia.com)